



GOMENDIOAK - EURI-JASAK

1. HERRITARRENTZAKO GOMENDIOAK

Hona hemen Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologia Zuzendaritzaren aholkuak euri-jasak gertatzen direnerako, ondorio txarrak saihesteko edo ahalik eta gehien murrizteko:

Prebentzioko neurriak:

- Ez ibilgailurik utzi ez eta kanpin egin ibilgu lehorretan edo ibaien ertzetan. Gerta liteke urak bat-batean gora edo gainezka egitea.
- Kendu ibilgailuak ur-putzuak sor daitezkeen inguruetatik eta urpetu daitezkeen garajeetatik.
- Ahal baduzu, ez hartu autoa.
- Bidaiatu beharra baduzu, ahal duzula, ibili errepide nagusi eta autobideetatik, eta ikusi ezinik bazabiltza, gelditu leku seguruaren batean.
- Erretiratu urak eramateko moduko gauza guztiak, batez ere, kutsadura eragin dezaketen produktu arriskutsuak.
- Begiratu inguruko hustubideak ondo dauden.

Larrialdietan hartu beharreko neurriak:

- Urrundu erreka, uhar, zubi edo urpean gera daitezkeen lekuetatik, eta ez saiatu urak hartutako lekuetatik pasatzen, ez autoz ez oinez: urak indar handia dauka eta eraman egin zaitzake. Ura dela-eta autoa errepidean ez aurrera ez atzera geratzen bazaizu, itzali argiak eta irten autotik.
- Mendi-magaletatik eta muino-magaletatik urrun egon; ura, harriak eta lohia amil daitezke-eta.
- Ura etxebizitzara sartuko balitz, alde soto eta behe-solairuetatik al bait azkarren.
- Etxea utzi beharra badaukazu, itzali argindarra eta itxi gasa eta ura. Gainera, utzi ohar bat ostatua non hartuko duzun adierazteko.
- Jo leku altuenetara; saihestu urpean gera daitezkeen lekuak.
- Jakinaren gainean egon beti, irratiz edo bestela, jakiteko egoera zertan den eta eguraldiaren iragarpenak zer dioen.

Larrialdietan, deitu 112 zenbakira

2.- UDALENTZAKO GOMENDIOAK

Hona hemen Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologia Zuzendaritzaren aholkuak euri-jasak gertatzen direnerako, ondorio txarrak saihesteko edo ahalik eta gehien murrizteko:

Prebentzioko neurriak:

- Udaleko larrialdiko planeko ekintza-planean agertzen diren langileei abisu eman. Bestela, halako egoeretan lagungarri izan daitezkeen udal-zerbitzuak aktibatu (udaltzainak, boluntario-taldeak, obra eta zerbitzuetako langileak, ur eta estolderietako zerbitzuak eta abar).
- Garbitu hustubideak, estolderia-sarea eta abar, uraren joana oztopa dezakeen dena kentzeko.
- Ziurtatu herrian ez dagoela inor uholdeak izateko lekuetan kanpin egiten, bereziki, ibilgu lehorretan edo erreka-bazterretan.
- Ez ahaztu TETRA emisorea hor daukazula, Udal Larrialdietako Sarekoa, larrialdiak koordinatzeko 112 zentroarekin kontaktatzeko.

Larrialdietan hartu beharreko neurriak:

- Gomendatu herritarrei urrun ditzatela ibilgailuak urpean gera daitezkeen lekuetatik edo erreka inguruetatik, eta jarri leku seguru batzuk ibilgailuak hara eramateko.
- Begiratu ibilgu nagusien emariari, eta larrialdiak koordinatzeko 112 zentroa jakinaren gainean eduki.
- Ibilguetatik hurbil dauden errepideetan urpean geratzen diren puntuak zelatatu eta kontrolatu, bereziki, zubi, ibi eta tunelak.
- Jakinarazi herritarrei euri-jasen arriskua dagoela, eta azaldu zer neurri hartu behar diren arriskua prebenitzeko.

Larrialditan, deitu 112 zenbakira

3.- LARRIALDIETAKO LAGUNTZA-ZERBITZUENTZAKO GOMENDIOAK

Hona hemen Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologia Zuzendaritzaren aholkuak euri-jasak gertatzen direnerako, ondorio txarrak saihesteko edo ahalik eta gehien murrizteko:

- Egoera hauetarako kontingentzia-planean zehaztutako langileei abisu eman. Bestela, egoki iruditzen zaizkizuen laguntzaileak aktibatu.
- Moldatu eskura dauden bitartekoak, dena delako egoerari ahalik eta ondoen erantzuteko.

Jarraipeneko mahaia edo krisi-mahaia antolatuz gero, garaiz jakinaraziko zaizue, edo lehendik aurreikusita zeudenetara dei egingo zaiz